

# TXUPINAZOA TXIKIA

IRAKASLEENTZAKO GIDA



GUÍA DEL PROFESORADO

# TXUPINAZO TXIKI

# IRUÑEA, **ELKARREKIN** ERAIKITZEN DUGUN HIRIA

---

## PAMPLONA, LA CIUDAD QUE CONSTRUIMOS **EN COMUN**

### 1. **SARRERA** *INTRODUCCIÓN*

Iruñeko Udalak hiriko ikastetxeak gonbidatzen ditu esperientzia sinple eta aberasgarri batean parte hartzera: gure hiria nolakoa izatea nahi dugun eta pertsona guztien artean nola hobetu dezakegun irudikatzea.

Proiektuak proposatzen du Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako neska-mutilek beren inguruko errealitatea behatzea, alda litezkeen alderdiak ezagutzea eta munduari kontatzeko proposamen bisual bat diseinatzea: A3 formatuko kartel bat.

Ez da azalpen formal bat, ezta ohiko lan akademiko bat ere. Funtsezkoena ez da azken emaitza, bidean gertatzen den guztia baizik: elkarriketa, entzutea, begirada partekatua eta elkarrekin ikastea.

Hiru saioen bidez, ikasleek beren hiriari buruz hausnartuko dute, beste pertsona batzuen lekuan jarriko dira, eta ohartuko dira bizikidetzaren eta ongizate komuna hobetzeko tresna bihur daitezkeela pentsamendu kritikoa, enpatia eta sormena.

Irakasle zaretenez, zuen eginkizuna erraza baina esanguratsua izango da: taldeari aurkikuntza-prozesu batean laguntzea. Gida hau, hain zuzen ere, horretarako sortu da: egitura argia, proposamen zehatzak eta orientabide pedagogikoak eskaintzea, esperientziaz gozatu ahal izateko, hezkuntzaren haria galdu gabe.

---

El Ayuntamiento de Pamplona invita a los centros educativos de la ciudad a participar en una experiencia sencilla y enriquecedora: imaginar cómo queremos que sea nuestra ciudad y cómo podemos mejorarla entre todas las personas.

El proyecto propone que los niños y las niñas de 4.º y 5.º de Primaria observen la realidad de su entorno, reconozcan aspectos que podrían cambiarse y diseñen una propuesta visual para contarlo al mundo: un cartel en formato A3.

No se trata de una exposición formal ni de un trabajo académico tradicional. Lo esencial no es el resultado final, sino todo lo que sucede en el camino: la conversación, la escucha, la mirada compartida y el aprendizaje conjunto.

A través de tres sesiones, el alumnado reflexiona sobre su ciudad, se pone en el lugar de otras personas y descubre cómo el pensamiento crítico, la empatía y la creatividad pueden convertirse en herramientas para mejorar la convivencia y el bienestar común.

Como profesorado, vuestra tarea será sencilla pero significativa: acompañar al grupo en un proceso de descubrimiento. Esta guía está concebida precisamente para eso: ofrecer una estructura clara, propuestas concretas y orientaciones pedagógicas que permitan disfrutar de la experiencia sin perder el hilo educativo.

## 2. IKUSPEGI METODOLOGIKOA ETA HEZIKETA-ZENTZUA *ENFOQUE METODOLÓGICO Y SENTIDO EDUCATIVO*

### Begirada kritikoa eta eraikitzailea

Ikasleei hiria nola hobetu irudikatzeko eskatzea beste modu batera begiratzeko gonbidapena da. Lehen bulkada kexa izaten da: funtzionatzen ez duena, falta dena, gogaitzen duena. Baina hasierako begirada horren atzean aukera paregabea dago sakonago behatzen ikasteko.

Pentsamendu kritikoa garatzeak nork bere buruari galderak egiten ikastea esan nahi du: zergatik diren gauzak diren bezalakoak, zer ondorio dituzten, eta nola izan litezkeen bestela. Hiri-espazioa partekatzen duten pertsonak aintzat hartzea ere esan nahi du, sentitzen edo behar dutena irudikatzeko, eta gure ekintzek nola lagundu dezaketen pentsatzea bizikidetzat atseginagoa izan dezaten.

Proiektuaren azken helburua da ikasleei laguntzea ulertzeko, proposatzeko eta zaintzeko gai diren herritar aktiboek behaketa kontzientea egiten.

### Esperientziatik ikastea

Lana ikaskuntza-egoera batean egituratzen da, eta ikasleek benetako eta testuinguruan kokatutako erronka bati egin behar diote aurre: beren auzoa edo hiria aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea.

Prozesu horrek haurrak jartzen ditu hezkuntza-ekintzaren erdigunean: ikertu, eztabaidatu, adierazi, sortu eta lagundu egiten dute. Urrats bakoitzak eskola- eta gizarte-bizitzarako funtsezkoak diren gaitasunak garatzen laguntzen du.

Hauek dira egungo funtsezko gaitasunak:

- Herritarren gaitasuna.
- Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko gaitasuna.
- Komunikatzeko gaitasuna.
- Ekintzailtzarako gaitasuna.
- Kultura- eta arte-gaitasuna.

Proiektua Erronketan Oinarritutako Ikaskuntzan (EOI) eta Design Thinking metodologi-  
gietan oinarritzen da, batez ere lehen faseetan: behatu, enpatizatu, definitu, asmatu eta  
komunikatu.

Teknikaz harago, ikuspegiak ingurunearekiko partaidetza-, lankidetzeta- eta konpromi-  
so-jarrerak sustatzen ditu.

## Irakasleen zeregina

Zure laguntza funtsezkoa da ikasleak entzunak, baloratuak eta proposatzeko gai senti-  
tuko diren testuingurua sortzeko. Zure galderak, zure esku-hartzeen tonuak eta elkarri-  
zketa errazteko moduak markatuko dute aldea.

Ikuspegiaren helburua ez da “hiria konpontzea”, baizik eta begiratzeko modu bat heztea:  
gogoetatsua, sortzailea eta eraikitzailea.

---

## Una mirada crítica y constructiva

Pedir al alumnado que imagine cómo mejorar su ciudad es una invitación a mirar de  
otro modo. El primer impulso suele ser la queja: lo que no funciona, lo que falta, lo que  
molesta. Pero detrás de esa mirada inicial hay una gran oportunidad para aprender a  
observar con más profundidad.

Desarrollar pensamiento crítico significa aprender a hacerse preguntas: por qué las  
cosas son como son, qué consecuencias tienen, y cómo podrían ser de otra manera.  
Significa también reconocer a las personas que comparten el espacio urbano, imaginar  
lo que sienten o necesitan y pensar cómo nuestras acciones pueden contribuir a una  
convivencia más amable.

El objetivo último del proyecto es acompañar al alumnado en el paso de la observación  
consciente a ciudadanos y ciudadanas activas capaces de comprender, proponer y cui-  
dar.

## Aprender desde la experiencia

El trabajo se estructura en una situación de aprendizaje, en la que el alumnado se en-  
frenta a un reto real y contextualizado: analizar su barrio o su ciudad y elaborar propues-  
tas de mejora.

Este proceso coloca a los niños y las niñas en el centro de la acción educativa: investigan,  
debaten, se expresan, crean y colaboran. Cada paso contribuye al desarrollo de compe-  
tencias esenciales para la vida escolar y social.

Las competencias clave presentes son:

- Competencia ciudadana.
- Competencia personal, social y de aprender a aprender.
- Competencia comunicativa.
- Competencia emprendedora.
- Competencia cultural y artística.

El proyecto se inspira en el Aprendizaje Basado en Retos (ABR) y en metodologías de Design Thinking, especialmente en sus primeras fases: observar, empatizar, definir, idear y comunicar.

Más allá de la técnica, el enfoque promueve actitudes de participación, colaboración y compromiso con el entorno.

### El papel del profesorado

Tu acompañamiento es clave para crear un contexto donde el alumnado se sienta escuchado, valorado y capaz de proponer. Tus preguntas, el tono de tus intervenciones y tu forma de facilitar el diálogo marcarán la diferencia.

El enfoque no pretende “solucionar la ciudad”, sino educar una manera de mirar: reflexiva, creativa y constructiva.

## 3. BEHARREZKO MATERIALAK *MATERIAL NECESARIO*

- Ikasleen koadernoak.
- A3 kartulina mehea azken kartelerako.
- Errotuladoreak, koloretako arkatzak edo margoak.
- Guraizeak eta itsasgarria (collagearekin lan egiten bada).
- Eskura dagoen beste edozein material artistiko.
- Arbela edo paper jarraitua.
- Musika instrumental suabea (aukerakoa).

- 
- Cuadernillo del alumnado
  - Cartulina A3 para el cartel final.
  - Rotuladores, lápices de colores o pinturas.
  - Tijeras y pegamento (si se trabaja con collage).
  - Cualquier otro material artístico disponible.
  - Pizarra o papel continuo.
  - Música instrumental suave (opcional).

## 4.

## SAIOEN GARAPENA *DESARROLLO DE LAS SESIONES*

55 minutuko hiru saiok gidatuko dute prozesu osoa:

1. Hiria behatzea eta beste pertsona batzuen lekuan jartzea.
  2. Hiriko bizitza hobetzeko proposamen zehatz bat definitzea.
  3. Modu sortzailean eta kolektiboan adieraztea kartel batean.
- 

Tres sesiones de 55 minutos guían todo el proceso:

1. Observar la ciudad y ponerse en el lugar de otras personas.
2. Definir una propuesta concreta para mejorar la vida urbana.
3. Expresarla de forma creativa y colectiva en un cartel.

# 1. SAIOA

## AUZOKIDEEKIN TOPAKETA

### Saioaren zentzua

henengo saio honek hiriko bizitzarekiko jakin-mina piztu nahi die ikasleei, eta elkarrizketarako eta enpatiarako gune bat ireki.

Ikasgela laborategi txiki bat bihurtzen da, non neska-mutilek Iruñeko errealitate desberdinak behatzen baitituzte eta pertsona bakoitzak modu desberdinean bizi duela ohartzen baitira.

### Helburuak

- Hiriko bizikidetzari buruz hausnartzea.
- Enpatia praktikatzea, beste pertsona batzuen lekuan jarrita.
- Hiri-espazioetan zer behar dauden eta zer hobekuntza egin daitezkeen identifikatzea.

Iraupena, guztira: 55 minutu

### 1. Sarrera (10 minutu)

Laburki aurkeztu proiektua eta bere helburua: gure hiria nola hobetu dezakegun irudikatzea, bertan bizi garenon begiradatik.

Animatu ikasleak esperientziak honelako galderekin partekatzera:

- Zer tokik sentiarazten gaituzte ondo Iruñean?
- Zeinek ez hainbeste? Zergatik?
- Zer aldatzen da euria egiten duenean, bero egiten duenean edo lagunduta goazenean?
- Pertsona guztiek berdin gozatzen al dute espazio publikoek?

Jaso ideiak arbelean. Jarduera nagusiaren oinarri izango dira.

### 2. Auzokideekin topaketa (30 minutu)

Garatu World Café formatuan inspiratutako dinamika bat, ikasgelara egokitua.

Lau mahai dituzte, eta bakoitzak ikasleen koadernoko orri bat du. Bertan, hiriko hainbat gune erakusten dira.

Azaldu talde guztiak lau mahaietatik igaroko direla, eta zortzi minutu inguru emango dituztela, gutxi gorabehera, mahai bakoitzean. Geldialdi bakoitzean eszenari erreparatuko diote, agertzen diren pertsonak identifikatuko dituzte, eta bi galdera nagusiri buruz hitz egingo dute:

1. Zer behar dute pertsona horiek?
2. Zer egin genezake leku horretan hobeto senti daitezen?

Hauek dira koadernoko agertokiak:

- Osasun-zentroa: adineko bat makilarekin eta heldu bat haur-kotxearekin.
- Eskola: iritsi berri den familia bat eta jolasean ari den edo antzerkia entseatzen duen talde bat.
- Plaza: kirolari bat, neska bat bere maskotarekin, nerabe talde bat.
- Autobus-geltokia: itsu bat eta kaleak garbitzen lan egiten duen pertsona bat.

Izendatu anfitrioi finko bat mahai bakoitzean, denbora guztian bertan egon dadin, taldeek emandako ideiak entzun ditzan eta koadernoan idatz ditzan. Gainerako ikasleak txandakatuz joango dira, eta beren ekarpena utziko dute espazio bakoitzean.

### 3. Sintesia eta bateratze-lana (15 minutu)

Talde guztiak lau mahaietatik igaro ondoren, bildu gelakideak biribilean. Anfitrioi bakoitzak bere mahaietan sortutako ondorio nagusiak partekatuko ditu.

Denen artean, aukeratu ideia bat edo bi, horiek lantzen jarraitzeko adostasuna eta ilusioa sortuko dituztenak.

Amaitzeko, baloratu begiraden aniztasuna, eta gogorarazi hiriari arretaz eta enpatiaz begiratzea dela hiria eraldatzeko lehen urratsa.

# SESIÓN 1.

## ENCUENTRO CON EL VECINDARIO

### Sentido de la sesión

Esta primera sesión busca despertar la curiosidad del alumnado por la vida de la ciudad y abrir un espacio de diálogo y empatía.

El aula se convierte en un pequeño laboratorio donde los niños y las niñas observan distintas realidades de Pamplona y descubren que cada persona la vive de un modo diferente.

### Objetivos

- Reflexionar sobre la convivencia en la ciudad.
- Practicar la empatía poniéndose en el lugar de otras personas.
- Identificar necesidades y posibles mejoras en los espacios urbanos.

Duración total: 55 minutos

### 1. Introducción (10 minutos)

Presenta brevemente el proyecto y su finalidad: imaginar cómo podemos mejorar nuestra ciudad desde la mirada de quienes la habitamos.

Anima a compartir experiencias con preguntas como:

- ¿Qué lugares nos hacen sentir bien en Pamplona?
- ¿Cuáles no tanto? ¿Por qué?
- ¿Qué cambia cuando llueve, hace calor o vamos acompañados/as?
- ¿Todas las personas disfrutan igual de los espacios públicos?

Recoge las ideas en la pizarra. Servirán de base para la actividad principal.

### 2. Encuentro con el vecindario (30 minutos)

Desarrolla una dinámica inspirada en el formato World Café, adaptada al aula.

Disponen de cuatro mesas, cada una con una lámina del cuadernillo del alumnado, donde se muestran distintos espacios de la ciudad.

Explica que todos los grupos rotarán por las cuatro mesas, dedicando aproximadamente ocho minutos a cada una. En cada parada observarán la escena, identificarán a las personas que aparecen y conversarán sobre dos preguntas clave:

1. ¿Qué pueden necesitar estas personas?
2. ¿Qué podríamos hacer para que se sintieran mejor en ese lugar?

Los escenarios del cuadernillo son:

- Centro de salud: una persona mayor con bastón y una adulta con carrito de bebé.
- Escuela: una familia recién llegada y un grupo que juega o ensaya teatro.
- Plaza: un deportista, una niña con su mascota, un grupo de adolescentes.
- Parada de autobús: una persona ciega y una persona que trabaja en la limpieza de calles.

Nombra un anfitrión o anfitriona fija en cada mesa para que permanezca todo el tiempo, escuche las ideas que aporten los distintos grupos y las anote en el cuadernillo. El resto del alumnado irá rotando, dejando su contribución en cada espacio.

### 3. Síntesis y puesta en común (15 minutos)

Una vez todos los grupos hayan pasado por las cuatro mesas, reunid la clase en círculo.

Cada anfitrión o anfitriona comparte las principales conclusiones surgidas en su mesa.

Entre todos y todas, seleccionad una o dos ideas que generen consenso e ilusión para seguir trabajándolas.

Cierra valorando la diversidad de miradas y recordando que mirar la ciudad con atención y con empatía es el primer paso para transformarla.

## 2. SAIOA

# ZER EGIN DEZAKEGU GUK?

### Saioaren zentzua

Hurrengo urratsa da behaketatik proposamenera igarotzea. Saio honetan, hobetzeko ideia zehatz bat definitu behar da, kolektiboki aukeratua, eta ideia hori nola adierazi planifikatzen hasi.

Elkarrizketaren eta erabaki bateratuen bidez, taldea hiriaren irudi posible bat eraikitzen hasten da: bidezkoagoa, inklusiboagoa eta sortzaileagoa.

### Helburuak

- Hobetzeko proposamen adostu bat hautatzea.
- Ikasgelatik eta ingurunetik egin daitezkeen ekintzak zehaztea.
- Ideiaren lehen zirriborro bisuala egitea.

Iraupena, guztira: 55 minutu

### 1. Sarrera (10 minutu)

Gogoratu aurreko topaketako ideia nagusiak. berrikusi mahai bakoitzetik atera ziren lau proposamenak labur-labur, eta eskatu taldeari zein garatu nahiko luketen hausnartzeko.

Adostasuna gidatzea funtsezkoa da. Galdera:

- Ideia hauetatik, zeinek adierazten du hobekien gela gisa ekarri nahi duguna?
- Gure ustez, zeinetan inplika gintezke benetan?

Lagundu iezaiezu erabakitzen, eta onar ezazue ahots guztien artean aukeratzearen garrantzia.

### 2. Gogoeta bidezko garapena (25 minutu)

Fitxa hau Ikasleen Koadernoan aurkituko duzue, eta zuek sortutakoarekin batera entregatu behar duzue. Fitxa honek txupinazo txikia jaurtitzeko zozketara sartzeko aukera emango dizue.

Proposamena aukeratu ondoren, bete elkarrekin koadernoko fitxa\*, gida-galdera hauek dituen:

1. Nori lagunduko diogu?
2. Zer egin dezakegu talde gisa haiei laguntzeko?
3. Zer egin dezakegu hiriko gainerakoekin batera haiei laguntzeko?
4. Nola lagundu diezaioke horrek hiri osoari?

Animatu itzazu askatasunez pentsatzera: garrantzitsuena sentitzen dutenarekin eta egin dezaketenarekin konektatzea da.

### 3. Zirriborro artistikoa (15 - 20 minutu)

Azaldu proposamena kartel bisual bilakatuko dela.

Pentsatutakoa modu argi, sortzaile eta erakargarrian irudikatzea izango da erronka. Eskatu iezaiezu elkarrekin erabakitzeke teknika (marrazkia, collagea, horma-irudia, teknika mistoa...) eta lehen bertsio bat egiteko. Gogoan izan proposamen sortzailea garraiatu ahal izan behar dela.

### 4. Amaiera (5 minutu)

Amaitu aurretik, hausnartu nola antolatu zareten, zein erabaki hartu diren erraz eta zein kostatu diren gehiago.

Balora itzazu entzuteko eta lankidetzan aritzeko jarrerak.

Gogoratu hurrengo saioa sortutakoa adierazteko eta partekatzeke unea izango dela.

## SESIÓN 2.

# ¿QUÉ PODEMOS HACER NOSOTROS Y NOSOTRAS?

### Sentido de la sesión

El siguiente paso es pasar de la observación a la propuesta. Esta sesión se centra en definir una idea concreta de mejora, elegida colectivamente, y en comenzar a planificar cómo expresarla.

A través del diálogo y la toma de decisiones conjuntas, el grupo comienza a construir una imagen de ciudad posible: más justa, inclusiva y creativa.

### Objetivos

- Seleccionar una propuesta consensuada de mejora.
- Concretar acciones posibles desde el aula y el entorno.
- Elaborar un primer boceto visual de la idea.

Duración total: 55 minutos

### 1. Introducción (10 minutos)

Recuerda las ideas principales del encuentro anterior. Repasa brevemente las cuatro propuestas que salieron de cada mesa y pide al grupo que reflexione sobre cuál les gustaría desarrollar.

Guiar el consenso es clave. Pregunta:

- ¿Cuál de estas ideas representa mejor lo que queremos aportar como clase?
- ¿En cuál creemos que podríamos implicarnos de verdad?

Ayúdales a decidir y reconoced la importancia de elegir entre todas las voces.

### 2. Desarrollo reflexivo (25 minutos)

Esta ficha, que encontraréis en el Cuadernillo del Alumnado es la que tenéis que entregar junto a vuestra creación y os dará acceso al sorteo para lanzar el chupinazo txiki.

Una vez elegida la propuesta, completad juntos y juntas la ficha del cuadernillo\* que contiene las siguientes preguntas-guía:

¿A quién vamos a ayudar?

¿Qué podemos hacer nosotros y nosotras como grupo para ayudarles?

¿Qué podemos hacer en conjunto con el resto de la ciudad para ayudarles?

¿Cómo puede ayudar esto a toda la ciudad?

Anímales a pensar libremente: lo importante es conectar con lo que sienten y pueden aportar.

### 3. Borrador artístico (15 - 20 minutos)

Explica que la propuesta se transformará en un cartel visual.

El reto será representar lo pensado de manera clara, creativa y atractiva.

Pedidles que decidan juntos y juntas la técnica (dibujo, collage, mural, técnica mixta...) y esbocen una primera versión. Recordad que la propuesta creativa se tiene que poder transportar.

### 4. Cierre (5 minutos)

Antes de terminar, reflexionad sobre cómo os habéis organizado, qué decisiones se han tomado con facilidad y cuáles costaron más.

Valora las actitudes de escucha y colaboración.

Recuerda que la siguiente sesión será el momento de expresar y compartir lo creado.

## 3. SAIOA

# GUKE PROPOSAMENA ERAKUTSIKO DUGU

### Saioaren zentzua

Hau da proiektuaren azken saioa, baita sortzaileena ere.

Taldeak bere ideiak adierazpen bisual kolektibo bihurtzen ditu: ikasitakoaz, amesten duten hiriaz eta elkarrekin lan egiteko ahalmenaz hitz egiten duen kartel bat.

Itxiera alaia da, ikasleek irudikatze eta proposatzeko gaitasunean duten konfiantza indartzen duena.

### Helburuak

- Proposamen komuna bisualki irudikatzea.
- Prozesu artistiko partekatu batean parte hartzea.
- Ikaskuntza ospatzea eta talde-lana aitortzea.

Iraupena, guztira: 55 minutu

### 1. Sarrera (10 minutu)

Hasteko, gogoratu aukeratutako proposamena, eta erakutsi A3 amaierako euskarria.

Galdetu iezaiezu nola irudikatzen duten kartela amaituta:

- Zer nahi dugu pertsonen kartela ikustean ulertzea?
- Zer sentazio edo emozio eragin nahi ditugu?

### 2. Adierazpen sortzailea (35 minutu)

Denbora horretan, ikasgela tailer txiki bihur daiteke.

Prestatu materialak, banatu zereginak libreki, eta lagundu lasaitasunetik.

Atzeko musika instrumentala jar dezakezu, eta laguntzera, talde txikietan edo kide-tasun arabera nahastera anima ditzakezu.

Gogoratu: garrantzitsuena ez da kartela “polita” izatea, baizik eta bizi izandako prozesua eta taldeak kontatu nahi duena irudikatzea.

Ekarpen guztiek dute garrantzia: marrazten duenak, koloreak nahasten dituenak, hitz bat idazten duenak edo xehetasun bat iradokitzen duenak.

### 3. Amaiaren era Azken gogoeta (10 minutu)

Kartela amaitu ondoren, egin amaierako batzar labur bat.  
Jarri kartelak ikusgai, begiratu eta hitz egin:

- Zer ikasi dugu guri eta hiriari buruz?

Baloratu elkarrekin zerbait sortzeko ahalegina, lankidetzeta eta plazera.  
Ikusarazi hiri bat hobetu egiten dela ideia partekatu bakoitzarekin eta begirada desberdin bakoitzarekin.

## SESIÓN 3.

# ENSEÑAMOS NUESTRA PROPUESTA

### Sentido de la sesión

Esta es la última sesión del proyecto, y también la más creativa.

El grupo transforma sus ideas en una expresión visual colectiva: un cartel que hable de lo que ha aprendido, de la ciudad que sueñan y del poder de trabajar juntos.

Es un cierre alegre, que refuerza la confianza del alumnado en su capacidad para imaginar y proponer.

### Objetivos

- Representar visualmente la propuesta común.
- Participar en un proceso artístico compartido.
- Celebrar el aprendizaje y reconocer el trabajo grupal.

Duración total: 55 minutos

### 1. Introducción (10 minutos)

Comienza recordando la propuesta elegida y muestra el soporte final A3.

Pregúntales cómo imaginan el cartel terminado:

- ¿Qué queremos que las personas entiendan al verlo?
- ¿Qué sensaciones o emociones queremos provocar?

### 2. Expresión creativa (25 minutos)

Durante este tiempo, el aula puede transformarse en un pequeño taller.

Prepara materiales, reparte tareas libremente y acompaña desde la calma.

Puedes poner música instrumental de fondo y animarles a colaborar, a mezclarse en grupos pequeños o por afinidades.

Recuerda: lo importante no es que el cartel quede “bonito”, sino que represente el proceso vivido y lo que el grupo quiere contar.

Todas las aportaciones cuentan: quien dibuja, quien mezcla colores, quien escribe una palabra o sugiere un detalle.

### 3. Cierre y reflexión final (10 minutos)

Una vez terminado el cartel, haced una breve asamblea final.

Poned los carteles visibles, observadlos y conversad:

- ¿Qué hemos aprendido sobre nosotros y nosotras y sobre la ciudad?

Valora el esfuerzo, la cooperación y el placer de haber creado algo en común.

Hazles ver que una ciudad mejora con cada idea compartida y cada mirada diferente.

## 4.

### CURRICULUMAREN ERREFERENTZIA *REFERENCIA CURRICULAR*

Proposamen hau Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculumaren barruan sartzen da, eta haren gaitasun-ikuspegiari erantzuten dio. Eranskinean modu garatuagoan aurkituko dituzun pentsamendu kritikoa, herritartasun-kontzientzia, enpatia, komunikazioa eta sormena garatzen laguntzen du.

Esta propuesta se enmarca en el currículo de Educación Primaria de Navarra y responde a su enfoque competencial. Favorece el desarrollo del pensamiento crítico, la conciencia de ciudadanía, la empatía, la comunicación y la creatividad que encontrarás de forma más desarrollada en el Anexo.

## 5.

### ERANSKINA. GARATUTAKO GAITASUNAK *ANEXO. COMPETENCIAS DESARROLLADAS*

#### Funtsezko gaitasunak

1. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko gaitasuna.
2. Herritarren gaitasuna.
3. Ekintzailtzarako gaitasuna.
4. Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako gaitasuna.
5. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

#### Ingurune naturala, soziala eta kulturala ezagutzeko gaitasun espezifikoak

- GE5: Ingurune naturaleko eta sozialeko sistemen ezaugarriak eta funtzionamen dua ezagutzea.
- GE6: Gizakiak ingurunean duen esku-hartzea aztertzea eta irtenbide kooperati boak bilatzen parte hartzea.
- GE8: Aniztasuna, berdintasuna eta enpatia balioestea, ongizate kolektiboaren oinarri gisa.
- GE9: Gizarte-bizitzan modu eraikitzailean eta errespetuzkoan parte hartzea, balio demokratikoetatik eta giza eskubideetatik abiatuta.

#### Arte Hezkuntzako gaitasun espezifikoak

- GE3: Ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adieraztea, arte-hi zkuntza desberdinen bidez.
- GE4: Arte-ekoizpen kolektiboaren sorkuntzan eta hedapenean parte hartzea, prozesua eta egiletza-zentzua balioetsiz.

---

## Competencias clave

1. Competencia personal, social y de aprender a aprender.
2. Competencia ciudadana.
3. Competencia emprendedora.
4. Competencia en conciencia y expresión culturales.
5. Competencia en comunicación lingüística.

## Competencias específicas de Conocimiento del Medio Natural, Social y Cultural

- CE5: Reconocer las características y el funcionamiento de los sistemas del entorno natural y social.
- CE6: Analizar la intervención humana en el medio y participar en la búsqueda de soluciones cooperativas.
- CE8: Valorar la diversidad, la igualdad y la empatía como bases del bienestar colectivo.
- CE9: Participar en la vida social de forma constructiva y respetuosa, desde los valores democráticos y los derechos humanos.

## Competencias específicas de Educación Artística

- CE3: Expresar ideas, sentimientos y emociones de forma creativa mediante distintos lenguajes artísticos.
- CE4: Participar en la creación y difusión de producciones artísticas colectivas, valorando el proceso y el sentido de autoría.